

ERRIRIK-ERRI

Sagardotegira...

TXOMIN GARMENDIA

Andoni Kortajarena adiskideak, «Gure Artean» orrialde ontan, sagardotegiari buruz idazten zun libeltzaren 9'an. Garai bateko sagardotegietatik gaurkoetara egin ziran aldaketak da abar esaten zitula.

Neroni ere konturatua nengon aldaketa oietzaz, zar askori entzundako kontuan bidez da abar. Izan ere garai batean sagardotegira, gaur tabernara baxo-erdi batzuk eratera joaten geran bezela joango zan. Gaur sagardotegira, tripazarra ondo betetzera goaz. Bestela ez du grazirik.

Orduan arraia izaten omen zan jatekorik nagusia sagardotegian; gaur txuletak daukaten ixtimazio ori, ez da amestu ere. Orain irurogei bat urte, gure izeba zan bat; Astiarra'ko Arrobitxulon zegon neskame. (Orduan, Astiarra'ko ta bernarik pamatuentxona noski). Ark ere gauza bera esaten zun, txuletarik etzala sagardoa erateko ibiltzen.

Arraiez urritzen joan geran bezela, txuleta ugaltzen joan gera, ta ori izan liteke aldaketa orren motiborik nagusia.

Jate-kontuan ezezik, beste ainbat aldaketa esan litezke sagardo ta sagardotegiaren jiran. 1915'garren urtean argitaratu zan liburu batean, Bizente Laffitte'k sagardoari buruz idazitakoa pozik irakurri det. Ara jakingarri batzuk:

Gipuzkoa'n sagastiak noiztik ditugun, antziñako denboretan galtzen da, Asia edo, Arpika'tik etorritako zugaitza ote dan batzuk dioten arren. Sagastiari buruz Gipuzkoa'n dagon idazirik zarrena. 1014'garren urtekoa da. Beraz, atzo goizekoa...

Gure arteko abizen-edo, apellidoak ere, garbi adierazten digute sagastiak aspaldikoak ditugula: Sagasti, Sagastiberri, Olasagasti, Atorasagasti, Sagastibeltz da abar.

Bi milla ta bosteun sagar-klase bai omen dira; lareun bat Gipuzkoa'n ditugularik. Askotan sagar bera lau-edo bost izenez ezagutzen da. Nolaz? Basarritar batek ekarri lezake basarri batetik-edo, erriren batetik sagar-klase bat, ta orduan basarri-edo, erri orren izena erantsi oizaio. Adibidez: Berrobi'n badegu geriziki-klase bat, «Larte-gerizia» deitzen dioguna. Berrobi'ko basarri bat da Larte, ta orko nagusiak, errian ezagutzen etzan geriziki-klase bat ekarri omen zun erretore-etxeke baratzen batetik, da ara nolaz zabaldu zan errian izen berriarekin.

Laffitte'k dionez: berrogei ta amar milla tonelada sagar biltzen baldin baziran Gipuzkoa'n, naiko urte ona juskatzen zan. Irurogei ta amabost urte joan dira geroztik, gaur zenbat biltzen ote dira?

Garai aietan, basarrik etzan izango Gipuzkoa'n sagardorik egiten etzanik. Orduko sagardo egiteko moduak ez ditu asko pamtzen ordea idazleak: garbitasun gutxiko tolareak, edozein ikullu baztarratan armiamasarez gainezturik da abar. Da; bear bezelako garbitasunak egiteko, basarri askotan nun izango zan ura? Egia esan bear bada, nolabaiteko sagardo asko eranda gure basarrietan. Gaurko inoxidablezko ontziak da txukuntasunak, urruti zeuden garai aietatik.

Libeltzaren 25'an ari naiz idazten, da gure sagardotegiak atea zabaldu dituzte; jendea asi da barra barra mama gozo orrekin ase naiean.

Kukua etortzen danean izaten omen da sagardorik onena, baiña kukua entzuterako trago batzuk egiñak izango gera, seguru asko.

Makiñabati entzuten zaio: «goazen sagardotegira», derriorrean txuleta batzuk tarteko bearko dira.

Lantegi ori pasea dago basarritik industrira; jendea berriz pozik joaten da jendea dagon tokira.

Sagardotegiz orain ez gabiltz garai bateko moldera, lendabiziko egingo degu apariaren galdera. Emakumea ere sartu da kupel guztien tartera! Ez derizkiot gaizki dagonik ondo konpontzen bagera.